Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

# *Mari Carmen Pagalday Garro Polleruena*

*Eskoriatza, Gipuzkoa (1930)*



Aurkibidea

# Biografia



Bolibar auzoko Olagoiti baserrian jaio zen, baina 7-8 urterekin kalera etorri zen. Aita Bolibar auzoko Esibei baserrikoa zuen eta ama auzo bereko Garruena baserrikoa. Bolibarko eskolan ibili zen urtebetez eta gero Eskoriatzako mesedetakoetan 14 urtera arte. Arrasaten eta Bilbon brodatzaile ikasketak egin zituen eta lan horretan jardun izan du bizi guztian. Aitak oilo-granja jarri zuen baserrian; gerora kalean eta baserrian hazi zituen oilook. 2000 oiloko granja izatera iritsi zen. Arrautzak saltzera Donostiara eta Gasteizera joaten zen. Etxeko dendan denetik saltzen zuten, baita euren arrautzak eta oilaskoak ere.

# Zintak

## ESK-046

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2009-04-27
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea

## ESK-047

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2009-04-27
- **Iraupena**: 20 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia

# Pasarteak

## 1. Oiloak ardien ordez

- **Erref**: ESK-046/002
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:01:57. **Bukatu**: 00:03:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

**Laburpena**:
Zortzi urtera arte bizi izan zen Olagoitin. Ardiek lan handia ematen zuten eta oilo-ustiaketa jarri zuten etxean. Kalera etorri ziren bizitzera eta txitak kalean hazi ondoren oilandak baserrira eramaten zituzten.

**Transkripzioa**
- Zu Olagoitin jaixo ziñan eta noiz arte egon ziñan han?
- Ba zazpi-zortzi urtera , hortxe. Ta handik bajau giñanian kalera.
- A, zazpi-zortzi urtekin e! familixa dana?
- Bai, osea ke gu, gure aitte ta ama ibiltzen zien betik olluekin. Labrantzan, nik labrantzarik ez neben ezagutu. Eurak lehelengo ifiñi ziren ardixekin baiña gero ba zela Bergarara-eta urten bihar euen neguen ze hemen ez zeguan pastorik ardixendako-ta orduen etxetik kanpora zelan urten bihar izeten ben negureko ba orduen ardixek kendu eta olluek ifiñi zittuen. Ta gero, osea asmue euen Bolibar eta (...) ibiltzeko. Hamen atara txitxak, geunken lau inkubadora, atarate zittuen mille ta seirehun txitxe batera. Ta hamen hazi eta ollendak eruten ziren baserrire.
- Hamen hazi, kalian?
- Hamen hazi txikixok ta hamendik ya ollendak handitxuek euzela eruten zien baserrire eta ibiltzen gittun baserrixe eta kalie, bixek.

## 2. Gerraostean mendira lanera

- **Erref**: ESK-046/003
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:03:00. **Bukatu**: 00:05:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

**Laburpena**:
1940. urtean oilo-ustiaketa guztia kalera ekarri zuten. Gerraostean, pentsu gabeziagatik, oiloak alde batera utzi zituzten. Basotik sutarako egurra kablez jaisteari ekin zion orduan aitak, Alabitatik "Depositto Zaharreraino".

**Transkripzioa**
- Baiña gero pentsuendako eta ha ya txarto euela, ta bueno ta ya dezididu zien hona etortie. Ta hona guztiz etor guztiz “en el año cuarenta” edo holakon bat. Bai.
- Eta horren orden oillueri jare, jarein zotsein?
- Orduen ez. Oillueri gero jarein getzen zelan pentsurik ez zeuen gerraostien, ya orduen ba oilluek kendu ein bihar izen zien. Orduen hasi zan gure aitte mendittik ifiñi kabliek, horra Zubibarri esaten jako, uren depositttuen onduen, hortxe ifiñi estante ba osea holako zer bat ta han deskargetan zan. Osa kablien etorten ziren egurrek ta han deskargetan ziren egurrek.
- A, egurra bajaitten...
- Egurre bai, bai, bai. Bai, ez dakit nik zemat kilometro egongo diren hortik Alabitxara eta hor, basoko arbolak ba ordun ba kendu ein bihar ziren.
- Nundik noraiñon ekarten...
- Bolibarretik, Bolibar goixik, goittik e, Alabitxa mendixa, Alabitxa izena, ta handik horraiño bajaketan ziren egurrek kablien.
- Eta esan dozu ekarri zittula ura dauen depositoraiño?
- Bai.

- Zela dau izena leku horrek?
- Depositto zaharra. Oseake Galartzetxe bizitza bi zuk esan dozu, ezta?
- ...
- Bueno ba haretxen ondo-onduen dau hori depositue. Lehengo depositu ure, oin ba Urkulutik dator ure baiña hona lehen urtero etorte zan ure Zelaitxuetatik. Edarra ure, bueno! oingo urek ur horreaz ez deko konparaziñorik.
- Ez harek ez zekan klororik ez , ezta?
- Ez horixe! tuberixie, lurretik dana, lurre osa ure eder-ederra. Ta hantxe onduen eote zan estanterixa, estanta bat kabliaz poleaz etorten zan ta ba hantxe deskargetan zien.
- Osake orden egur kargie euen, baiña kablez.
- Kablez, kablez, kablez.

## 3. Su-egurra saltzen

- **Erref**: ESK-046/004
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:05:01. **Bukatu**: 00:06:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

**Laburpena**:
Astoekin poleak jasotzen zituzten su-egurra jaisteko. Pinuak sartzeko basoak garbitzen geratzen zen egurra erosi, etxera ekarri eta zatitu egiten zuen ekonomika edota berogailuentzako. Gero etxerik etxe saltzen zuen. Gasogenodun kamioientzako ere saltzen zuen.

**Transkripzioa**
- Ta gero astuekin eroate ziren polea hutsek astuekin mendiraiño eruten ziren harek. Ta barriro harek poleakin etorte zan egurre, kablien.
- Eta gero egurre kamionetan edo...
- Egurre gero hortik hona ba kamionetan, kamionetan ez astuekin normalmente. Ta gero hementxe eskapeien ta osea beste habitaziño bat dao barrurau, zerrie ifiñi ta hor zatittu.
- A baiña sutegurra zan?
- Bai sutegurra zan, sutegurra, sutegurra bai.
- Osea piñuak eta ez?
- Ez, ez , ez. Pague ta ba horrek.
- Sutegurra, sutarako egurre.
- Porke ordun modan jeuen ba piñue sartzeie. Eta piñue sartzeko ba basuek hutsittu ein bihar ziren, ta orduen ba ba paguek eta haretxak eta horreik ba eurak ebaten zittuen “osea los dueños” . Eta guk gure aittek-eta erosi, ta hona ekarri ta hamen zatiketan ziren ekonomikarako moduen eta beste batzuk handitxuauek estufatarako. Ta gero hamen errepartiduten ziren harek egurrek, danak etxerik etxe eta holaxe errepartiduten ziren. Ta asko eruten euen kamioiekin Bitorixara. Bai kamioiekin, gasojenuek eta zela orduen ziren kamioietan, harendako eruten ziren egurrek, harendako ebai bihar izaten ziren itxikitxuek, bai.

## 4. Oiloen ustiaketari ekin berriro

- **Erref**: ESK-046/005

- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:06:21. **Bukatu**: 00:08:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

**Laburpena**:
Durangoko jesuita bat etorri zen oilo eske. Pentsua berak zuzenduko zuela, eta berriro ekin zioten oilo ustiaketari. Jesuitek gobernuaren baimena omen zuten pentsua lortzeko. Karmenek 16 urte inguru zituen orduan. Arrautzak ere saltzen zituzten Durangon. Horrela jarraitu zuten pentsua erostea berriro libre izan zen arte.

**Transkripzioa**
- Ta gero handik urtetxo batzuetara, ba nik ez dakit lau-bost urte edo sei-edo, etorri zan Durengoko Jesuitta bat. Hona etxera. Ta preguntau eben, ba gure aittatik ta karo kalien eta etorri zan eta aitte ez zeuen ez daki nora fango zan baiña aitte orduen ez euen. Ta amagaz, amagaz egon zan ta harek esan eutsen: “a ver si le podíamos sacar unos pollitos”.
- Baiña zuek ya hori kenduta.
- Inkubadorak ondiok be hortxe daz, hortxe daz ondion be. Eta “a ver si le podríamos sacar y criar”. Ta amak esan eutsen: “sacar es un poco difícil pero si se puede hacer, fácil”. “Le decíamos, con petróleo estaban las incubadoras”. “Pero luego criar no hay pienso, y no podemos criar”. “De eso no se preocupe, todo el pienso que necesitan yo les traigo al portal”.
- Erdalduna, emakumia?
- Jesuittie zan., jesuittie bai. Durengon zeren Jesuittak. Ta hortittik hasi ta ifin ginttun barriro olluek. Klaro, orduen estraperlue zan, pentsue eta hala ibiltzie…
- Eta jesuittek itten euen hori.
- Baia jesuittak ba libre euken itxurie.
- Jaingoikuaren izenian.
- Hareri emote otsen gia, gobernuek emote otsen gia klaro. Baeuken ume asko, mutikuek eta estudiantiek asko, eta gobernuek emote otsen gia ekarteko pentsue, “osea ellos podían trabajar con el pienso”.
- Gero ollaskuk-eta eskolan jateko?
- Ba komentuen. Komentuen klaro, estudiantiek ekezan orduen asko han be. Ta holaxe hasi nitzen barriro olluekin.
- Ta orduen jesuittak ziren.
- Bai bai, Durengoko jesuittak. “Hermano Antonio” oso gizon majue ta bueno… balixo ebela gaiñera negoziorako balixo eben, ba!
- Ta orduen, zuek zemat urte zittuen? Hori pasau zanian?
- Hori pasau zanian ba nik hamalau-hamabost bat urte, edo hamasei bat bai eukiko nittuen ya. Bai bai. Eta gero ba beragaz amistade haundixa hartu gendun porke klaro berari be edarto etor jakon hareik: ollendak eta ollaskuek eta danak. Eta klaro ba gero gure aiztie Durengora, bueno aizta bixek fango ziren lehelengo, durengora arrautzak saltzen faten ziren.
- Etxeko arrautzak.
- Bai bai, etxekuek, etxekuek.
- Zu orduen hain pentsuakin atzera be olluek ifiñi…
- Gero ha ifin ginttuen olluekin bai eurei pentsue pagetan jakuen, ba etxien konsumiduten zana ta zea, ta bueno gero ya libre jarri zan, ta libre jarri zan ta ekarte eben, Bittorixatik ekarten eben pentsue ta gero etxerako urune olluendako.

## 5. Pentsua etxean prestatuta

- **Erref**: ESK-046/006
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:08:56. **Bukatu**: 00:11:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

**Laburpena**:
Aitak pentsua egiteko errota jarri zuen etxean. Jesuitak Argentinatik ekarritako artoa eta beste hamaika gauzekin prestatzen zuen oiloentzako janaria. Artoaren zakuekin ohazalak eta sukalderako trapuak egiten zituen amak.

**Transkripzioa**
- Aittek preparetan eben. Ifiñi eben errotie be bai, porke gure aitte oso artistie izen zan. Ta ifiñi eben errotie bertan osea Bolibarren euen errotie, baiña gero zuk guk osea sozio, auzo dana ba sozio, baiña zela pentsu asko gastetan geben eta aparte jo eitten geben, ba batzuk kejau ein ziren ba!
- Eurek baiño gehixau ebaten zebillelako?
- Hori ba, hori da. Eta gero aittek esan eben: “bai hori be bai? Ba ifiñikou etxien errotie eta jokou etxien”. Ta holaxe preparetan zittuen. Gero nire anaie be oso artista, oso terriblie da, bamos zan por desgracia. Tesan eitte ben lana ta tesan burdinakin ba gero klaro tio be horren, oin ein bitzazu entrebistie? Ba horren aitte egote zan han ta jose bera be artistie ta euren artien ein euen tanbora bat, burdiñieaz ta gero hantxe botaten zitttuen hamazortzi klase gurien aittek, botaten zittuen olluen pentsuetarako, “que si carne de gallina, de pescau, de carne conchilla en harina” eta bueno nik ez dakit zertzuk, “panizo”, dan-dan-dan-dana jota, garixe, artue, dana.
- Material dana jo eta gero nahastu berak eitten eben.
- Exaktamente.
- Orduen, ya konpuestoa erosi biharrik ez zeukan.
- Ez, ez, ez, ez. Hantxe tanborrien dana, ta artue denboralditxuen egon zan, eurok, jesuittak ekartzen zittuen “de Argentina” artue ekarten euen.
- Aiba, hemen ez zeuen artorik?
- Gutxi orduen, gerra ostien. Ta harek zela Argentinan etxurie konpañian bat eukiko euen ta hola ebaketan zittuen. Ta etorte zien zaku zuri-zuri-zurixek, ederrak zakuek holakotxe zuri-zuri-zurixek baiñe eder-ederra. Oindion gure armarixuen bada, porke ama be holakotxie zan, dana aprobetxetakue ta harek zakuekin lehelengo ein zittun sobrekamak.
- Sobrekamak, arto zakuekin?
- Bai, bai. Esate otsut, oingo sukaldeko trapuk ezer ez dabe balixo, lehenauko harizku harizko harek, harizko harizkoak e? holakotxiek zien. Holakotxiek. Eta ein entre dos bat, bera gantxilloagaz oso artistie zan, gantxilloagaz entre dosa ta lozakuekin sobrekamie. Bai, ta gero harekin sobrekamakin sukaldeko trapuek in zittun, ta ondiok sukaldeko trapuek hor armarixoan egongo die atarateko estriñetako.
- Oin dala, oin dala zemat urteko kontue da hori?
- Ba zakuek ez dakitt, ze ifintten ban “el año cuarenta y dos, me parece que ponían”. Bai, bai, bai, bai, bai, bai.

## 6. 2.000 oiloren arrautzak saltzen

- **Erref**: ESK-046/007
- **Iraupena**: 0:03:58. **Hasi**: 00:11:42. **Bukatu**: 00:15:40

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

**Laburpena**:
Inkubagailuak zeuden tokitik aldatu eta denda jarri zuten. Bi oilategi zituzten etxe ondoan. Baserrian 2.000 oiloraino eduki izan zuten. Gasteizera eta Donostiara saltzen zituzten arrautzak. Baserritik trenera astoz, eta tren geltokitik saltokira orgaz eramaten zituzten arrautzok. Goizean zaperoa eta arratsaldean alea jaten zuten oiloek.

**Transkripzioa**
- Orduen, orduen atzera baserriko martxiori hartu ein zeuen?
- Barriro olluekin baserrixe itxi geben.
- Baiña olluek non hazten zittuen, hemen bertan?
- Hamentxe, hamentxe. Hortxe atara, ze eskapeko onduen dau zera kuartue. Oin dau bamos gero zerrau geuen, baiñe han egon zan librerixie, periodikuek-eta saltzen zittuena eta oin zea lau inkubadora justu-justuen sartzen ziren hantxe. Eta gero aiztiek ifiñi eben han ba dendatxo bat, periodikuek eta dana saltzen zittuena ta gero horreik inkubadorak pasau zittuen barrurau eta hortxe hasi eta gero geunken hamen bi ollotegi, oin bota dittuez danak hamentxe bat, ollotegi bat, hamentxe etxe ondo-onduen ta beste bat errekie pasau eta harutxau be geure terrenue zan, bamos ondiok erosteko geunken e! ta hantxe beste ollotegi bat ein ta ba hortxe hasi ta gero hemen behien lo ta hemen behien eitten euen ta ba holaxen hasi giñen.
- Ta zemat ollo euki zittuein aldiko?
- Baserrixen bi mille pasauraiño allegau ziren.
- Bi milla?
- Bai, bai bai, bai.
- Horrein danan arrautzak saldu eitten zittuein?
- Bai Bitorixera faten zan aitte Bitorixera ta Donostiera.
- Dendatara eta hola?
- Bai, plazan. Mas ke nada plazan baiña bera hara allegetan zanerako holakoxe korrue eindde, abasto emon eziñik. Klaro ba arrautzak bakizu fresko-freskue eta edarra. Ollo zuri-zurixek ta ba baserrittik, ba eguaz... eguenetan faten ziren eta eguazten dan-dan-dan-dana eta martizen atsaldie arrautzak ifinten, kajatan. Kaja espezialak eindde ta gero astuekin bajau, orduen ez zeuan kamiñorik.
- Astuakin kalera ekarri gero aittek zer eukan kamiona?
- Ez trenien.
- Trenian.
- Bai trenien, kamioie euki, dirue be nun euen ba?
- Eta gero trena eta gero han estaziñotik merkaura? Bai bertan ya estaziñuen horrenbeste urtien ya hartute euken bertako ba “un mozo”, ta karro handi bategaz bi biaje edo hiru-edo handittik plaza de abastosera.
- Zemat arrautza erute zeben?
- Ba milleka dozena erungo ziren.
- Osea bi milla olloraiño.
- Bai bai, bai.
- Eta hemen kalien euki zittuenien?
- Hamen, hamen gutxi. Hamen zazpirehun-zortzirehun. Ointxe, ointxe hiru urte dire kendu gittunak azkenak. Bueno gero gutxiau geunekn porke bagenekigun ze zetorren o ze problema geunken. Baiña hemen be

laurehun-seirehun egon da, eukitte gaz. Bai, bai, bai, bai. Hor ez zeguan bedarrik oingo moduen, porke orduen suelto, orduen danak suelto ibiltzen ziren. Goizien, bai bai, bai. Ta goizien emoten jakuen zaperue eta eguerdixen be bai. Eta gero atsaldien ya granue: garixe, olue eta artue. Garagarra ez jakon /etxakon/ gustetan aitteri, garagarra esaten eben ha kaballuendako zala. Ta gero zera “panizo”.
- Panizo ez dakit zer dan.
- Panizo…
- Ez da izango kañamuen….
- Haxe hazixe, “eso es”. Eta gustetan jakuen ollueri, bueno… Lehelengo batzen euena haxe izete zan.
- Kañamuakin, kañamuen familixako landarakin eitten dittue porruek.
- Eitten dittue?
- Bai.
- “¡Ahí esta!”
- Gustau ollueri be.
- Bai, bai, bai.
- Kakaraka gustora eingo euen.
- Bueno hor egoten ziren kakaraka arrautzie eutten ben bakotzien., bueno! Kakaraka horixe eitten euena.
- Baiña igual panizua jan ta musikie ta dana.
- Ez dakit hori. Ez dakit baiña asko gustetan jakuena bai. Ta gero artue ta gero hurrenguen garixe. Azkenengo olue izten euen. Baiña bueno, jaten euen ha be.
- Osake ondo gobernautako...
- Bai, bai, bai. Ta klaro arrautzak famie, bueno… ta “¿son frescos?” ta gurien aittek askotan eitte eben kaskau ta klik “pa que vean que son frescos”. Gero preguntaurik bez.

## 7. Inkubagailuak

- **Erref**: ESK-046/008
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:15:40. **Bukatu**: 00:17:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

**Laburpena**:
Lehenengo inkubagailuak petrolioarekin berotzen ziren. Gero elektrifikatu egin zituen aitak. Elgoibarrera, Eibarrera eta Durangora joaten ziren arrautzak saltzera. Etxeko dendan ere saltzen zituzten.

**Transkripzioa**
- Ta gero gure dendie bakitzu zela hasitte dauen? pentsaizu nundik alla...
- Hau? Beheko dendatxu hau?
- Bai, bai. Aitta fan arrautzakin Bittorixera, ta sagarrak ikusi han baserrittar batek eta “¡Jose Mari, lleva huevos, uy, lleva manzanas, ya que has traído huevos ahora lleva manzanas!”. Barkatxu bat sagar hartu ta haretxek saltzen lehelengoketatik, haixe zan gure “la primera venta, una barca de manzanas”.
- Ta orduan dendia osea fruta saltzeko dendia ipiñi zeuen.
- Bai, bai, bai, bai.
- Esan dozu zure ahizpiak periodiko dendia-edo.
- Bai, baiña hori ya ezkondu ta gero.

- A, hori geroko kontue da.
- Geroko fanada euen bai. Baiña ha dendie ifiñi euen lekuen egon ziren, lehelengo-lehelengo baserrittik bajau zienak inkubadorak. Ta lehelengoko urtietan, urte askuen egon zien petroliueaz atarateN gittuen. Bai, txitxak atarateko bai, bai. Porke klaro ure bihar daue gaur (…) egunien bi buelta emon bihar jakue arrautzari be, goixien eta gabien. Bai, olluek be emoten (…) buelta, inkubadoratan bai.
- Eta gero baserrixen ollalokie egoten zan.
- Exaktamente. Baiña arrautzak horrei bai eitten eutsan aittek kurtze bat, ta goixian ha kurtzie gora begire, ta gabien behera begire, bi buelta emoten jakuen. Eta gero elektrifikau in zittuen inkubadorok, ya elektrizidariegaz. Ta petroliuena porsiakaso ez gentson kendu porke orduen argixe Bolibartik etortze zan ta uran askotan, zela ura falta zan, orduen ba bixetara egon zien.
- Karo ze ya zuek hotziketan jatzuez arrautzak eta danak galdu.
- A bai, bai, bai, bai, bai. Sekule be ez geuen euki problemarik arrautzak saldu eziñik. Gero aiztak Elgoibar, Eibar ta Durangora bixetara, hiruretara ibiltzen ziren.
- Trenez hareik be?
- Harek trenez, trenez klaro! “es el año cuarenta”. Bai, holaxe izen zan gurie, ta gero dendie ba apurke-apurke-apurke, “pues hasta ahí hemos llegau”.
- Ta gero dendia ordun hasi ziñanian sagarra saltzeko.

## 8. Denetariko denda etxean

- **Erref**: ESK-046/009
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:17:53. **Bukatu**: 00:21:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

**Laburpena**:
Aitak trenez ekartzen zuen fruta saltzen zuten dendan. Oinetakoak ere saltzen zituzten. Trena kendu zutenean, autobusez eramaten zituzten arrautzak Donostiara eta Gasteizera. Hasieran kanpora ere saltzen zuten; gero dendan bakarrik. Arrautzak eta oilaskoak saltzen zituzten. Oilaskoak bizirik saltzen zituzten.

**Transkripzioa**
- Lehelengo-lehelengo barkakada bat sagar. Hurrengoko astien ba zela ondo saldu zien, hurrengoko astien ba ya bi edo hiru ta bai, ta gero naranjak eta ba de todo.
- Ta horrek danak ekarten zittun aittak Bittorixatik?
- Aittak trenien bai, bai, bai, bai, trenien. Eta pentsue-eta be trenien orduen, klaro! Ta hamen guardaujie esaten jakona, ba klaro de tren a tren zela bi ordu euken ba hola pentsu asko allegetan bazan berak karro haundixenak hartu zittuen eta ekarten zittuen eskaperaiño.
- Eskapie zereri esate zattue?
- “Al portal”.
- Portal eskapia e?

- Zuek Oñatin zela esaten dotsazue?
- Bebarrua-edo.
- Ez, ez, hamen eskapie.
- Normalien bebarrua portalari.
- Ya ya ya, ahí esta, ikusi! Ta holaxe gure bizimodue. Ta gure dendan saldu da danetik; zapatak be bai, “de todo se ha vendido”.
- Eta orduen noiz arte noiz arte egon ziñain arrautzak Donostira eta Gasteizera eruten?
- Donostiara eta Gasteizera ba trenien gero ya autobusin aitte ibili zan, autobusien be eruten zittuen batzuk, eta beste batzuk trenera ya “en el año cuarenta” ya hace cuarenta años o berrogeta bat pasau die ointxe kendu zala trena?
- Ez dakot goguan.
- Ez dakit berrogeta bat edo berrogeta bi pasauko bazien.
- Osake hirurogeita zortzixan edo hola kenduko zan, ni mutikua, hamar urte. Ni mutikotan Oñatin be bauen trena.
- Oiñ ez dau ya claro, San Prudentziotik. Ga haixe kendu zanien hemengue be bai. Porke San Prudentziokue orduen kendu zan ta San Prudentziotik faten zan Oñatira, klaro! Ta gure aitte bueno, ba, ba, ba, ze esango dotsut? Oin hogeta hamar urte izengo die ya Bittorixeri itzi tzela. Posiblemente, gero ba dendan.
- Urte asko…
- Bueno urte askuen aitte fan zan. Buf! “¡ya lo creo, ya lo creo! ”.
- Horregatik pollero famosua.
- Karo, klaro. Hamen inguruan ba nik ointxe telefonotik deiketan dotenien “Karmen Polleruena”, en kanbio “Pollera” esati etxata gustetan. Euskeldunek batek bez baiña, honek erdeldunok “La pollera” askotan e!. “A mi eso no me gusta a mi dime ‘la de Pollero’, ‘Pollero’ nada”.
- Eske ‘Polleruena’ da
- Bai, bai, bai-
- Zure aitta zan ‘Pollerue’.
- Bai, bai, bai gure aitte, zemat ollaskoa eruten eben Bittorixera be astien-astien jaulatan.
- A, osea arrautzak bakarrik ez, okelie be saltzen zeben.
- Bai ollaskuek be bai, ollaskuek. Klaro, klaro.
- Ai karo industria bat euken hor…
- Bai, bai, “en resumidas cuentas” haxe zan.
- Eta esan dozu orduen ya Bittorixakua eta Donostiakua itzi zebenien ya arrautzak eta ollaskuak-eta danak dendatik saltzen zittuein.
- Dandan, bai, bai. Ta ollaskuek be bai. Ta bueno jentie, bueno! Klaro, bizirik gero eurak hiltzen zittuen. Oin gaur ez litzake salduko.
- Ametidu ez.
- Ametidu? Gaztiek ollasko bat etxien hiltzen ez doiez. Ba lumatute ba...
- Karo, horregatik igual ez dabe ametitten bizirik saltzen.
-Ba “sanidad pues en primer lugar” ez leukie, klaro, klaro.

## 9. Hegazti-gripea Eskoriatzan

- **Erref**: ESK-046/010
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:21:07. **Bukatu**: 00:23:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

**Laburpena**:
1955. urtean oilo guztiak hil zitzaizkien, hegazti-gripeak jota. 35 oilanda besterik ez zitzaizkien geratu. Nahi gabe, gaitza Eskoriatzara ekarri zuten, baina ez zen beste kalteturik egon, Karmenek dakiela behintzat. Erre egin behar izan zituzten gaixotutako oiloak. Bai oiloek eta baita ugazabek ere asko sufritu zuten gaitzaren erruz.

## 10. Garbantzuak 100 gramoka saltzen

- **Erref**: ESK-046/011
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:23:43. **Bukatu**: 00:26:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

**Laburpena**:
Dendaren hasierako bitxikeria batzuk. Garbantzuak 100 gramoka saltzen ziren; errealetik pezetara aldaketa; gerraosteko paperezko diru-baleak. Azkenengo paperezko dirua Errepublikakoa izan omen zen.

## 11. Gerraosteko miseriak

- **Erref**: ESK-046/013
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:29:20. **Bukatu**: 00:31:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

**Laburpena**:
Hegazti-gripearen ondorioz gaixotu zitzaizkien oiloak ortuan pilatu, gasolinaz igurtzi eta erre egin zituzten, edo lurperatu. Diru-baleak kolore ezberdinetakoak ziren, balioaren arabera. Erosketak ordaintzeko nahikoa diru ez zutenei izena hartzen zitzaien dendan, dirua zutenean ordain zezaten.

## 12. Birramonak miñoia menderatu

- **Erref**: ESK-046/014
- **Iraupena**: 0:04:24. **Hasi**: 00:31:10. **Bukatu**: 00:35:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena**:
Gose denboran litro bat oliori ematen zitzaion balioa. Errazionamenduko ogia ez zegoen jaterik. Estraperloa. Karmenen birramonak bere ahizparekin miñoia zuhaitz batera lotuta utzi zuenekoa.

## 13. Amama eta amandrea

- **Erref**: ESK-046/015
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:35:34. **Bukatu**: 00:37:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena**:
Amandrea edo amama. Karmenen bilobak Karmeni 'amandria' esaten dio.

**Transkripzioa**
- Ta zan ban ire amama. Oin amandrie esate jako a la...osea bueno oin amadrerik ez da existiduten. Oin “a la abuela” esate jako ‘amama’. Ta lehen, nire denboran, bestaldera zan. Karo!
- Bai. Usteot nere aitta-amak be euren, euren aittajauna eta amandriari ‘aittajauna’ eta ‘amandria’ esaten jakuela.
- Esaten otsiela.
- Baiña nik ez dakit zegatik, guk ‘amama’ eta ‘aittitta’.
- Klaro, ikusi? Bai oin desde luego hamen be holan hasi zien ‘amama’ “a la abuela”. Eta gero gure euen, hartu izen bueltie lehengo moduen, lehengo moduen, baiñe ya ba berandu klaro. Ya mutil bamos, ume askok ya ikesi euen ‘amama’ eta ‘aitaita’ eta ba halaxe segiduten da.
- Ba guk ‘amama’ eta aittitte’, eta nere illobak be nere aitta-amei ba ‘amama’ eta ‘aittitta’.
- Klaro, klaro, klaro. En kanbio horrek mutikotxuek niri ‘amandria’. Esan ein neutsien e, jaixo aurretik: “bueno nik gurot amandria esatie mutikuek e?”, “bai, amandrie?” esan eusten semiek, neure semiek. Ta nik: “bai”, ta “a bueno ba, zeuk amandrie gure bozun”. Eskoitzan asko daz ‘amandriek’ eta ‘aittejaunak’ esaten dotsienak e! oin ‘abuela’ asko “pues a lo de antes”.
- Baiña oin baiña karo keba.
- Gatza da.
- Lehen, lehen, lehen edozein modutan lehen emakumiak umiak gaztetan eukitten zittuein.
- Bai.
- Oin ya amandrek ezautu ez askotan.
- Hori da, hori da.
- Hogeta hamar urtekin lehenengo umia badakotzu...
- Amamaik ya, osea “la bisabuela” askoz ez, ez, ez... egixe da hori, halaxe da.
- Lehen baserri-etxe baten euezen hiru belaunaldian kargakin.
- Bai, bai.

## 14. Eskola kontuak; dantza bekatu

- **Erref**: ESK-046/018
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:38:11. **Bukatu**: 00:41:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena**:
Belaunaldi ezberdinak elkarrekin. 14 urtera arte "Hermanas Mercedarias"en ikasi zuen. Goizetik eskola eta arratsaldez arrosarioa errezatu ondoren, eskulanak egiten zituzten. Helduta dantza egiteagatik zigortzen zituzten; "conducta: cero" beste neska batekin dantza egiten bazuten, edo "zortzi egunerako etxera" mutil batekin izan bazen.

## 15. Igande arratsaldea Eskoriatzan

- **Erref**: ESK-046/019
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:41:28. **Bukatu**: 00:42:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena**:
Eskoriatzako plazan, igandero jotzen zuten bandak, akordeoiak eta danbolin joleek. Dantza bukatu, lasterka afaldu eta zinera joaten ziren.

**Transkripzioa**
- Eta aparte, San Pedrotatik aparte domekatan egoten zan musikarik plazan?
- Bai.
- Domekero, ezta?
- Bai. Baiña klaro, ni eskolatik ya kanpora egongo nitzen baiña plazan kontinuo-kontinuo. Eskoitzako plazie zan “una privilegiada”. Jote eben bandiek, “la banda” Eskoriatzan banda edarra euen, ederra. Ta ointxe be bei e, ointxe be badaukau bandie bueno “de los primeros”. Ta gero joten zan akordeoie, akordeoie, Mondragoetik etorte zan un tal Lucio Markaide ta gero tanboliñe, sueltue. Osake sartzen gintten plazan atsaldeko seiretan ta urten be ez zeban eitten bederatziek arte, bederatziek lauderen gutxirau arte, despatxetan zanien bandie orduntxe. Etorri etxera prisaka afaldu eta zinera eta zinera bederatziak eta larenetan, domekero hori izete zan. Ta konforme! Oinguk baiño gustorau, domekie noz allegetan dan desietan. Bueno...
- Ze gaztie danien ez zeuken zer itterik. Oin berriz dana telebisiñoian, bestian, han, hemenguan…
- Exaktamente, exaktamente. Oin ein da desde luego “de punta a punta” esaten doten moduen.
- Ya dantza be ez da eitten.
- Ke ba! Keba! Gero keja eiutten die ez dauelako ekarten. Ekarten dabie bailabliek be San Pedroatan, egunen baten ifintzen dabe ta nok eitten due ba dantzan? iñok bez. Iñok bez, keba. Ez dau merezi.

## 16. Bordatzen ikasi zuen

- **Erref**: ESK-046/020
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:42:52. **Bukatu**: 00:45:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena**:
Bolibar auzoko eskolan urtebetez ibili eta gero kalera etorri zen . Mojetakoa bukatu eta Arrasatera joan zen bordatzen ikastera. "Singer" etxeak Bilbon ematen zituen bordatze ikastaroetako bat egin zuen.

## 17. Bordatzeko makina zaharrak

- **Erref**: ESK-046/022
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 00:45:24. **Bukatu**: 00:48:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

**Laburpena**:
130 pezetako bordatzeko makina erosi zuen Karmenen amak Gasteizen. Makina zahar horrek oraindik ere puntada finagoa egiten omen du makina berriagoek baino. Bilbon ikasten zegoela, baba handien leka, alerik gabe, eman zioten jateko.

## 18. 63 urtean bordatzen

- **Erref**: ESK-046/024
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:50:31. **Bukatu**: 00:52:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

**Laburpena**:
Arrasaten eman zioten brodatzaile titulua. Oraintxe arte jardun da Karmen bordatze lanetan. 63 urte daramatza bordatzen jadanik. Eta umeak hazi, denda zaindu eta etxeko lanak egiten ere bai.

**Transkripzioa**
- Orduen eskolan be bastante profesiño, karreria be atako zendun zuk ez? Bordadore karreria, ezta? badakotzu zuk titulua, diplomia?
- Titulua bai, goixen dauket.
- Nere amak be badako.
- Madrillen hori, osea Mondraoen, hori atara neuen Mondraoen. Ta gero Bilbon egon nintzen, makiñie erregale osten tia batek, ta hori makiñaori erregalau arte ba aman zahartxuenein neben, baiña ederra makiñie, makiñie ederra da. Ondiok be hor dau, goixen.
- Orduen zuk gero bordaitten-ta urtietan eingo zendun lan?
- Bai! Ointxe arte, ointxe operau nintzenien itzi naben, baiñe ondiok be lan banak hortik erdizke hortik badauket eta aber aurtengo udabarritxuen denpora hobetxuau eitten dabenien eitteko asmue badauket. Bueno ba pentsaizu “desde el año cuarenta y cuatro que empeze” zemat urte die? “Sesenta y…” .
- Joe samurre da esatia.

- “Sesenta y cinco años”, ba hirurogeita bi urtien jardun dotsat bordetan.
- “Sesenta y cinco”en jentia jubilau eitten da.
- Ni ez naz jubilau e!
- Baiña “sesenta y cinco años” lan eindde ez, e!
- Hori da, lana ein barik.
- Hirurogeita bostera arte lana ein ta gero jubilau, ta zu hirurogeita bost in dittuzu bordaitten.
- Bai, bai, bai. Hirurogeta hiru. “Para más seguridad” hirurogeta…bueno ez, porke oin dauket, hirurugeta hamazortzi, “setenta y ocho”, hirurugeta hamazortzi, oin hiru urte “setenta y cinco años”, “que empeze con catorce”,bai, “sesenta y dos, sesenta y tres años”.
- Ta gero osea bordaittetik aparte umiek hazi…
- Dendia bai ama hil arte. Ama be egon zan, baiña ama hil zala ya hogeita hamalau urte die. Manejau eitten da.
- Biheko.
- Biheko gaiñera, biheko gaiñera!

## 19. Tertuliak kalean eta baserrian

- **Erref**: ESK-046/026
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:56:06. **Bukatu**: 00:58:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

**Laburpena**:
Lehenago etxekoandreak San Juan kalean elkartzen ziren tertulian, bakoitza bere lana egiten; prakak konpondu, patatak zuritu, etab. Umeak ere amen kontuak entzuten egoten ziren. Arto-zuritzea ere tertulian egiten zen, baserri ezberdinetakoak elkartuta. Batzuetan arrosarioa errezatzen zuten. Beste batzuetan "kuri-kurike" jolastu. Ohitura horiek gaur egun galduta daude.

## 20. Gutxiagorekin konformatzen ikasita

- **Erref**: ESK-046/027
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:58:40. **Bukatu**: 01:02:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena**:
Lehenagoko jendeak konformidade handiagoa zuen. Gutxirekin bizitzen ikasita zeuden. Bolibarko eskola berria 1932an ireki zuten. Auzoko gizonek auzolanean egin zuten eskola. Eskola horretako azken ikasturtea 1974. urtean eman zuten. Azkenengo maistra, zaragozarra, Eskoriatzara ezkondu zen.

## 21. Alfilerka jolasa

- **Erref**: ESK-047/003
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:01:33. **Bukatu**: 00:04:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena**:
Alfilerrekin nola jolasten zen azaltzen du. Alfilerrak irabazteko zer egin behar den.

## 22. Txirikiletan eta zapiaren jolasa

- **Erref**: ESK-047/008
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:06:03. **Bukatu**: 00:07:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena**:
Txirikiletan jolastea arriskutsua da, makila airean hartu behar delako. "Pañuelito" jolasa.

## 23. Aita gau eskolako irakasle

- **Erref**: ESK-047/013
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:11:48. **Bukatu**: 00:14:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Aita Almenera joan zen eskolara, gaztea zela, eta ez zen bueltatu. Gero, eskola ematen egon zen bera. Bere kabuz ikasi zuen dena. Joxe Mari zuen izena. Bi pezeta ematen zizkioten. Ardizain ibili zen mutikotan. Barre zergatik egiten zioten ikasleek.

## 24. Aita, bere kabuz ikasia

- **Erref**: ESK-047/015
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:14:52. **Bukatu**: 00:15:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

**Laburpena**:
Bere kabuz ikasi zuen zekiena aitak. Ama (amona) bildotsak saltzera joaten zen, eta semeak problema liburuak ekartzeko esaten zion.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2026-11-11*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com